BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

5366

EBAZPENA, 2011ko urriaren 10ekoa, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariarena, Galdakao-Usánsolo Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren osaera aldatzeko dena.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariaren 2011ko urriaren 16ko Ebazpenaren bidez, kreditazioa berritu zitzaion Galdako-Usánsolo Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari (urriaren 14ko EHAA, 196. zenbakia).

Ospitaletik, Batzordeko bi kideri baja emateko eskaria jaso denez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoen egiaztapenei buruz Osasuneko sailburuak 1994ko irailaren 28an emandako Aginduak (urriaren 24ko EHAA, 202. zenbakia) 3. eta 7. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorriz, eta Osasun eta Kontsumo Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuari jarraituz, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Galdakao-Usánsolo Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoko kideak izatetik bazter uztea Ainhoa Urrutia Losada andrea, Farmaziako lizentziaduna, eta Amaia López de Torre Querejazu andrea, Farmaziako lizentziaduna.

Bigarrena.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina. Ebazpena, bestalde, Osasun eta Kontsumo Ministerioari jakinaraziko zaio.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordeari edota Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 10a.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendaria,
JOSÉ ASUA BATARRITA.